

BESTELAKO XEDAPENAK

ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

602

AGINDUA, 2026ko urtarrilaren 28koa, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarena, martxoaren 17ko 30/2015 Dekretuan eta otsailaren 21eko 27/2023 Dekretuan aurreikusitako seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzen aurrekontu-zuzkidura jakinarazten duena.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 320/2024 Dekretuaren 1. artikulua dioenez, sail horri dagozkio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 15. artikuluan zehazten diren egitekoak eta jardun-arloak. Dekretu hori lehendakariaren uztailaren 30eko 36/2024 Dekretuaren artikulua bakarraren zazpigarren paragrafoak aldatu zuen.

Ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 15. artikuluan, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailari dagozkion egitekoen eta jardun-arloen artean, erronka demografikoa eta familiaren babesa sartzen dira.

Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legearen xedea da familia-politika integral baterako esparrua eta oinarriak ezartzea, familien eta familiako kideen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzera bideratuta. Lege horren II. tituluko I. kapituluak seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak arautzen ditu, eta 8. artikuluan eskubide subjektiboaren izaera ematen die, baldin eta laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen badira.

Seme-alabak dituzten familientzako laguntzei buruzko 27/2023 Dekretuak hileko laguntzak jasotzen ditu seme-alabengatik, bai eta ezohiko laguntzak ere erditze anizkoitzagatik, adopzio nazional anizkoitzagatik eta nazioarteko adopzioagatik. Arau horrek indargabetu egiten du laguntza horiek arautzen zituen 30/2015 Dekretua, eta xedapen iragankorretan ezartzen du 30/2015 Dekretuaren arabera izapidetu eta diruz lagunduko direla % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna edo seme-alabekiko mendekotasun-egoera aitortzeagatik emandako laguntzen bikoizketari buruzko eskaerak, baldin eta bikoizketa-arrazoi horiek bost urteko epean jakinarazi bazitzaizkion organo kudeatzaileari, jaiotzatik edo, hala badagokio, adopzioa, adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren delegazioa edo tutoretza eratu zenetik.

Bi dekretuetan jasotako laguntzen helburua seme-alabak dituzten familia guztiei gutxieneko baliabideak bermatzea eta haur-pobrezia prebenitzea da, eta Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren 2025-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartuta daude. Plan hori sailburuaren 2025eko otsailaren 21eko Aginduaren bidez onartu zen.

30/2015 Dekretuaren 30.2 artikuluan eta 27/2023 Dekretuaren 12.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, sailburuaren agindu bidez, familia-politikaren arloan eskumena duen sailak urtero emango du bertan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko aurrekontu-zuzkiduraren berri, edo, hala badagokio, zuzkidura hori eguneratzearen ondoriozko zenbatekoaren berri. Ondorioz, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Horrenbestez, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean jasotako publikotasun-printzipioarekin eta Seme-alabak dituzten Familientzako Laguntzen otsailaren 21eko 27/2023 Dekretuaren 12.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– 1.– Seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak arautzen dituen marxoaren 17ko 30/2015 Dekretuan aurreikusitako dirulaguntzen lerroak betetzeko, 220.000,00 euro bideratuko dira gehienez.

2.– Seme-alabak dituzten familientzako laguntzei buruzko otsailaren 21eko 27/2023 Dekretuaren esparruan aitortu behar diren diruz laguntzeko moduko egoeretarako, 199.704.126,00 euro bideratuko dira gehienez, eta horietatik 58.504.126,00 euro 2026ko ordainketa-kredituari dagozkie; 53.500.000,00 euro, 2027ko konpromiso-kredituari; 37.500.000,00 euro, 2028ko konpromiso-kredituari; 34.800.000,00 euro, 2029ko konpromiso-kredituari; eta 15.400.000,00 euro, 2030eko konpromiso-kredituari.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Hasierako aurrekontu-esleipena eguneratzen bada, otsailaren 21eko 27/2023 Dekretuaren 12.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, horren berri emango da Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuaren agindu baten bidez.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaiokete Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek ondorioak izango ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urtarrilaren 28a.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA.